

## BEZERO KANALA

Bezero kanala gure bezeroekin komunikatzeko modua da, hau da, bezero batek gure produktuan interesa duenean, berarekin nola jarriko garen harremanetan.

- ☐ Gure kanala mota zuzenekoa izango da, hau da, aurrez aurrekoa. Gure enpresa txikia denez, eta enpresa fisikoa dugunez, Euskal Herrian, fisikoki salduko dugu. Enpresa guztiek bezala gure asmoa handitzea da, gure ideia etorkizunean Iberiar penintsulako leku euritsuetara zabaltzea izango da.
- ☐ Aurrez aurre komunikatuko gara bezeroekin. Modu zehatz eta ulerkorrean salduko dugu gure produktua. Gaur egun energiarekin lotuta dauden zenbait arazo azalduko dizkiegu, eta ondoren gure produktuaren abantailak zein diren azalduko diegu.
- ☐ Guk, produktua sare sozialetan eta gure web orrialdean salduko eta zabalduko dugu, beraz, sare sozial edo web orrian bezeroren bat interesatuta badago, bezero honekin harremanetan jarriko gara, produktuaren ideiak argitzeko. Kasu honetan, modu erraz batean komunikatuko gara, bezeroei ez zaielako interesatzen informazio gehiegi eta aspergarria ematea. Publizitatearen bidez, gure bezeroak erakarriko ditugu, beraien interesa pizteko. Irratian iragarki bidez, patrozinioei esker, baina patrozinio lokalak, ez internazionalak, aldizkari lokaletan. Behin bezeroarekin harremanetan jarrita, gure enpresaren helbidea emango genioke, oraindik ez dugulako produktua etxeetara banatzen.



Bezeroekiko kanala zuzena izango da, aurrez-aurre tratatuko ditugu. Aukera izango dute gurekin zuzenean enpresan bertan, aurrez aurre hitz egiteko eta produktua ikusi. Bestalde, gure sare-sozialen eta web orriaren bidez, enpresaren gmailarekin edo mugikor zenbakiarekin harremanetan jarraitzeko aukera izango dute.